

DIRU - ITURRIAK

Bi bezero mota ditugu: gure aplikazioa instalatzen dutenak, aplikazioa operatibo egongo den lurraldean dauden herriak bisitatzen dituztenak edo bertako biztanleak izango direnak, hau da pertsona fisikoak; eta enpresak, gure zerbitzua kontratatuko dutenak haien negozioa ezagutarazteko.

Alde batetik, dende gu ordainduko gaituzte bezeroak haien dendetara gidatzeagatik eta hauetan kontsumitzera bultzatuko ditugulako. Dendei haien publizitatea egiten laguntzen diegu, gure enpresa bitartekari moduan dagoelakoan. Hauek kuota minimo bat ordaindu beharko dute, haien tamainan arabera izango dena. Horretaz aparte, negozioaren diru-sarreraren arabera gehiago edo gutxiago ordaindu beharko dute. Honela funtzionatuko du ez dugulako nahi negozio hauen egoera ekonomikoan negatiboki oztopatzea (gure helburua herriko kontsumoan eragin positibo bat izatea baita), eta era horretan haiek gutxiago kezkatu behar dira zerbitzu honek eragiten duen kostua haien egoera kontuan hartzen duelako. Hau guztia urteko kontratu batean oinarrituta dago, nahiz eta denborarekin, enpresek guran konfiantza gehiago dutenean, kontratu honek denbora gehiagorako luzapena izango duen.

Beste alde batetik, gure aplikazioa jaisten dutenek dira gure zerbitzua kontratatua duten enpresen produktuak erosten dituztenak. Hauek ere gure bezeroak dira: guri esker ezagutzen dituzte negozioak eta hauetan dauden promozioak, etb. eta honek enpresek guri esker dirua irabaztea eragiten du, hauen konfiantza eta beste enpresek gu kontratatzeke ospea guk irabaztea eragiten duena.

Hauek ez digute zuzenean dirua ematen, baina aplikazioan publizitatea eta iragarkiak egongo dira, eta hauek hor egoteko enpresa partikularrek ordaindu behar gaituzte.

Enpresarekin hasten egongo garenez, bankuari mailegu bat eskatzen hasiko gara. Gainera, diru-laguntza publikoa eskatu geniezaieke (azkenean gizarteari onura bat ematen duen negozioa baita) udaletxeari eta estatuari. Era honetan, diru-marjin handiagoarekin hasiko ginateke eta erraztasun gehiago izango genuke denarekin.